

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2023ko uztaila

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Inflazioa
3. Familien konfiantza
4. Ekonomiaren igurikimenak
5. Enpleguaren igurikimenak
6. ELGaren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %1,6 haziko da 2023an

Nazioarteko testuinguruaren arabera, hazkundera motel-
du egingo da inguruko herrialdeetan.

2. EAEko KPIa %3,4an kokatu zen maiatzean

Elikagaien prezioek %10,0etik gora garestitzen jarraitzen
dute.

3. EAEko familien konfiantzak hobera egin du, nahiz eta balio negatiboetan jarraitzen duen.

Lan merkatuaren dinamismoak egungo egoeraren irudi
positiboagoa izaten laguntzen du.

4. Euroaren eremuko PMI konposatua jaitsi egin zen ekainean.

Manufakturrek zerbitzuek baino bilakaera negatiboagoa
erakusten dute.

5. Europako enpleguari buruzko igurikimenek positiboak izaten jarraitzen dute.

Europako Batzordeak egiten duen indizeak gora egin zuen
ekainean herrialde gehienetan.

6. ELGak munduko ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak hobetu ditu.

Energiaren prezioen jaitsiera inflazioa jaisten laguntzen
ari da.




EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %1,6 haziko da 2023an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2023ko BPGA GUZTIRA
%1,6




Iragarpenik ezkorrenak bete ez badira ere, 2023ko datuek munduko ekonomiaren hazkundera moteltzen ari dela berresten dute. Inflazio handia gutxitzen joan den heinean, banku zentralak finantzaziorako baldintzak gogortzearen ondorioek ekonomiak gero eta gehiago hoztuko dituztela aurreikusten da. Bereziki Europako testuinguruan, Errusiak Ukraina inbaditu izanak ondorio kaltegarriagoak duten ekonomiekin, aurtengo aurreikuspenek seinalatzen dute hazkundera tasa neurritsua izango dela.

Ziurgabetasunez beteriko nazioarteko testuinguru zail hori dela eta, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak hazkundera aurreikuspenak eguneratu ditu, eta espero du EAEko ekonomia %1,6 haziko dela 2023an, lehen hiruhilekoan aurreikusitakoa baino apur bat positiboagoa izan zelako. Balio nominaletan, hazkundera %5,9 izango da. 2024ra, prezioen igoera apalduko da eta, horrekin batera, panorama ekonomiko globala hobetzeko agertoki bat aurreikusten da, EAEko ekonomiari %2tik gora hazteko aukera emango diona.


AZKEN KONTSUMOKO GASTUA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Erosteko ahalmenaren galerak eta interes tasen hazkunderak azken kontsumoko gastuaren hazkundera %2tik beherako tasetan utziko dute, bai aurten, bai datorren urtean. Kapital eraketa gordinak, covid osteko susperraldiaren bultzadaren zati bat galdu arren, hazkunde erritmo onari eutsiko dio oraindik 2023an (%2,8) eta 2024an (%2,7). Sektoreen ikuspegitik, zerbitzuek joera positiboari eutsiko diote, eta eraikuntzaren bilakaerak ziurgabetasun handiagoa erakusten du, euriborraren gorakada biziaren ondorioz.

Aurreikuspenen arabera, enplegua %1,1 haziko da 2023an eta %1,6, berriz, 2024an, eta, ondorioz, langabezia tasa hiru hamarren jaitsiko da 2023an eta zazpi hamarren 2024an.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Ehunekoak




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

EAEko KPIa %3,4an kokatu zen maiatzean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadiko kontsumoko prezioek urte arteko %3,4an itxi zuten maiatza, apirilean baino zortzi hamarren beherago. Bilakaera horren arrazoia da erregaien eta elektrizitatearen prezioek behera egin dutela, eta elikagaien prezioak igoera apalagoa izan duela, aurreko hilabeteen aldean igoera moteldu baitute.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2023ko maiatza
Inflazio osoa	3,1	8,1	3,4
Azpiko inflazioa	1,0	5,1	6,4
- Elikagai landuak	1,4	10,2	14,3
- Industria ondasunak	1,0	4,7	4,9
- Zerbitzuak	0,7	3,3	4,0
Hondar inflazioa	12,1	20,0	-8,7
- Landu gabeko janariak	2,6	10,8	5,8
- Energia	21,3	28,2	-19,7


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Hain zuzen ere, EAEko elikagai produktuen prezioak hiru hilabetez jarraian izan zuen motelteza, %11,8an kokatuz, nahiz eta 2022ko maiatzaz geroztik bi zenbakiko igoerekin jarraitzen duten. Era berean, energiak aurreko hilabeteetako jaitsierak berretsi zituen, eta, beraz, KPlak beheranzko bideari eutsi zion, eta hurrengo hilabetean hobetzen jarraituko du, oinarrizko efektuaren ondorioz. Izan ere, iazko ekainean inflazioak nabarmen egin zuen gora, eta, beraz, 2023koarekin alderatuta, prezioak nabarmen

TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



apalduko dira. Hala ere, badira prezioen igoera berri bat eragin dezaketen arriskuak. Alde bateatik, hilaren hasieran, Saudi Arabiak alde bakarreko murrizketak iragarri zituen petrolioaren ekoizpenean, baina gorakada txiki baten ondoren, Brent upela 75 dolarren inguruan kokatu zen. Bestalde, lehortek elikagaien prezioak igo ditzake, nahiz eta ekoizpen katean duen garrantzia elektrizitatearena edo gasolinarena baino txikiagoa den.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2023ko maiatza

	Euskadi	Espania	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	3,4	3,2	6,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	11,8	12,0	13,7
Edari alkoholduak eta tabakoa	7,5	8,5	7,6
Jantziak eta oinetakoak	2,0	1,9	4,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-11,3	-10,5	4,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	7,2	5,8	7,2
Osasuna	2,9	1,8	2,8
Garraioa	-3,0	-3,7	0,1
Komunikazioak	2,6	2,6	0,5
Aisia eta kultura	4,6	4,3	5,7
Hezkuntza	1,9	1,6	4,5
Jatetxeak eta hotelak	6,0	7,2	8,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	6,1	4,8	5,3


Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

FAMILIEN KONFIANTZA

EAEko familien konfiantzak hobera egin du, nahiz eta balio negatiboetan jarraitzen duen

EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2023ko II HIRUHILEKOA
-7




EAEko familiek ekonomiaren bilakaeran zuten konfiantzak suspertzen jarraitu zuen, eta bi puntu hobetu zen 2023ko bigarren hiruhilekora, nahiz eta balio negatiboetan (-7 puntu) jarraitu. Zehatzago adierazita, 2023ko lehen bi hiruhilekoek gutxitu egin zuten 2022ko ezkortasuna, eta 2022ko amaieran izan zuen beherakada handiena (-23 puntu), amaitzeko itxuririk gabeko gatazka beliko baten eta inflazio iraunkor handiaren ondorioengatik.

Konfiantzaren hobekuntza merkataritzako bazkide nagusiek ere partekatu zuten, nahiz eta, kasu guztietan perspektiba ezkorragoak izan. Europar Batasuneko pertzepzio txar hori justifikatzen duten faktore komunen artean, nabarmentzekoak dira inflazioaren ibilbidea, ekonomiaren susperraldiaren moteltzea eta ekonomiak aurtengo gainerako hilekoetan izango duen bilakaerari buruzko aurreikuspenak.


FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2021	2022	2022				2023	
			I	II	III	IV	I	II
Euskadi	-6	-11	8	-7	-22	-23	-9	-7
Europar Batasuna	-9	-23	-15	-22	-27	-27	-21	-19
Frantzia	-7	-19	-13	-19	-23	-22	-21	-18
Alemania	-5	-18	-9	-19	-21	-21	-18	-13
Espainia	-14	-26	-17	-25	-33	-30	-23	-21

EKONOMIA OROKORRA




FAMILIAREN EKONOMIA




Osagaien arabera, familien konfiantzaren hobekuntza langabeziaren bilakaerari buruzko igurikimenetan oinarritu zen neurri handi batean. Indize hori nabarmen hobetu zen (6 puntu), eta horrek zeinu aldateta ekarri zuen; izan ere, 2022ko bigarren hiruhilekotik lehen aldiz, positiboa izan zen berriro. Lan merkatuaren bizitasunak, Gizarte Segurantzako afiliazio maximo historikoez eta langabezia tasa baxuak hobekuntza hori bermatzen dute.

Aitzitik, ekonomia orokorrari eta familiako ekonomiarri buruzko aurreikuspenek negatiboan eta ia geldituta jarraitu zuten lehen hiruhileko emaitzarekin alderatuta, baina hobetu egin dira hamabi hilabeterako aurrezteko gaitasunari (1) eta inflazioaren beheranzko kurbari buruzko sentrazioak; izan ere, hiruhileko honetan berriro murriztu da, -4 punturaino, 2022ko laugarren hiruhilekoan erregistratutako -51 puntutik oso urrun.

LANGABEZIAREN BILAKAERA



AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral Kutxa.



ENPRESEN KONFIANTZA


Euroaren eremuko PMI konposatua jaitsi egin zen ekainean

Ekainean, euroaren eremuko PMI konposatua 50,3raino moteldu zen, oraindik ere hedapen eremuan kokatuta, baina geldialdi mailaren (50,0) ez oso gaintik. Manufakturen adierazlea 44,6ra jaitsi zen eta uzkurdura eremuan murgilduta dago. Zerbitzuen adierazleak, berriz, joera hedakorra du oraindik (52,4), nahiz eta aurreko bost hilabeteetan erregistratutakoa baino nabarmen txikiagoa den.


Jarduera galera horren arrazoiak honako hauek dira: jasotako eskaera berrien beherakada, enpleguaren moteltzea eta etorkizunari buruzko igurikimenean okertzea. Alderdi positibo bat da eskariaren murrizketari esker, egin gabe dauden eskaeren metaketak behera egin duela eta produktuen eta zerbitzuen salmenten prezioen igorakerak apaldu egin direla aurreko hilabeteekin alderatuta.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2023KO EKAINA
50,3




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Bizitasunaren galera orokorra bada ere, euroguneko herrialdeak dira emaitzarik txarrenak izaten ari direnak. Hala, Alemaniak hiru puntu galdu ditu eta 50,8an geratu da; Frantzia, berriz, ia lau puntu jaitsi da 47,3 punturaino, herrialdeko gatazka sozialek baldintzatuta. Bi herrialdeetan, manufakturrek dute profil ezkorrena eta 44,2ra baino ez dira iristen.

Eurogunetik kanpo, AEBek eta Erresuma Batuak puntu bat baino pixka bat gehiago galdu dute, eta 53,0 eta 52,8 mailatan daude, hurrenez hurren. Maila horiek jarduera ekonomikoaren hazkunde moderatua adierazten dute. Japonian, azken datua 52,3koa izan zen.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




ENPLEGU IGURIKIMENAK

Europako enpleguari buruzko igurikimeneak positiboak izaten jarraitzen dute

ENPLEGU IGURIKIMENAK
EUROGUNEAN

2023KO EKAINA
105,0




Ekainean, Europako Batzordeak enpleguari buruz argitaratzen duen igurikimen indizea zertxobait hobetu zen aurreko hileko emaitzaren aldean. Hori horrela izanda, euroaren eremuko datua 105,0 izan zen eta Europar Batasunekoak, berriz, 104,3. Bi kasuetan, lortutako maila azken hogeituroteetako batez bestekoaren gainetik dago kokatuta, horri ematen baitzaio 100 balioa. Enplegu adierazle horrek erakusten duen baikortasuna ez dator bat sentimendu ekonomikoaren indizeak


ematen duen irudiarekin, berriz ere atzerapausoa eman baitu bai eurogunean (95,3), bai Europar Batasunean (94,0). Jarduera adierazle hori puntu bat jaitsi da azken hilabeteetan, eta azken bi hamarkadetako batez bestekoaren azpitik dago argi eta garbi. Kontsumitzailearen konfiantzak pixka bat hobera egin badu ere, industriak eta zerbitzuek erakutsi duten beheranzko bilakaerak bere jardunean intentsitatea galdu dutela adierazten du.

ENPLEGU IGURIKIMENAK
EUROPAR BATASUNA


2023KO EKAINA
104,3



ENPLEGU IGURIKIMENAK ALEMANIAN




ENPLEGU IGURIKIMENAK ITALIAN




Euroguneko herrialde nagusi guztiek enpleguari buruzko igurikimen onak erakutsi dituzte, eta ia guztiek, Frantziak eta Herbehereek izan ezik, emaitza hobetu dute ekainean. Hain zuzen ere, Alemanian maitatzean 100,5 izatetik ekainean 102,1 izatera igaro da, Italian 108,1 puntura iritsi da eta Espainian 108,7 puntura. Aitzitik, Frantzian adierazle horrek behera egin du pixka bat, 103,1 puntutan dagoen arren, eta Herbehereetan 102,5 puntutan dago.


ENPLEGU IGURIKIMENAK FRANTZIAN



ENPLEGU IGURIKIMENAK HERBEHEREETAN



ENPLEGU IGURIKIMENAK ESPAINIAN




Iturria: Europako Batzordea.

ELGak munduko ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak hobetu ditu

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGaren aurreikuspen berrien arabera, munduko ekonomia %2,7 haziko da 2023an. Tasa hori, aurreko zenbatespenean zenbatetsi zutena baino sei hamarren handiagoa bada ere, oraindik ere 2022ko hazkundearen azpitik dago. Energiaren prezioen beherakadak inflazioak beheranzko bidea hartzea ekarri du, baina, bestalde, azpiko inflazioak bere horretan jarraitzen du. Espero da diru politikak pixkanaka prezioen igoerari eusten laguntzea, finantza egonkortasuna arriskuan jarri gabe.

ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2022	2023	2024	2023	2024
Munduko ekonomia	3,3	2,7	2,9	0,6	0,2
AEB	2,1	1,6	1,0	1,0	-0,1
Eurogunea	3,5	0,9	1,5	0,4	0,1
Alemania	1,9	0,0	1,3	0,3	-0,2
Frantzia	2,5	0,8	1,3	0,1	0,1
Italia	3,8	1,2	1,0	1,0	0,0
Espainia	5,5	2,1	1,9	0,8	0,2
Erresuma Batua	4,1	0,3	1,0	0,8	0,8
Kanada	3,4	1,4	1,4	0,4	0,0
Japonia	1,0	1,3	1,1	-0,6	0,2
Txina	3,0	5,4	5,1	0,7	1,0
India	7,2	6,0	7,0	0,4	0,1
Brasil	3,0	1,7	1,2	0,5	-0,2


AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



AEBetako ekonomiak ahultasuneko zantzuak erakusten jarraitzen du, eta 2023an, igurikimenak hobetu arren, hazkundea %1,6 izango da, eta 2024an, ekonomia globalaren hobekuntzaren testuinguru orokorrean, hazkundea %1,0 baino ez da izango. Euroguneak 2023an izango duen hazkundea ez da %1era iritsiko, eta Alemania nabarmenduko da modu negatiboan, bere ekonomia gelditu egingo baita. Euroaren gainerako ekonomia handiek, hala nola Frantziak, Italiak eta Espainiak, ekarpen handiagoa egitea espero da, batez ere azken horren kasuan, nahiz eta, azken batean, suspertzeko aldi luzeagoa agerian utzi besterik ez duen egingo. Azaleratzen ari diren ekonomien aldetik, Txinak hazkunde handia lortuko du bere ekonomia berriro ireki ondoren, 2023an eta 2024an %5etik gorako tasak lortuta.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
BPG	5,9	4,4	5,8	5,0	3,8	2,9	2,3
Barneko azken kontsumoa	5,2	2,2	2,9	1,8	2,0	2,1	1,9
Familien kontsumoa	5,6	3,0	3,5	3,2	2,7	2,3	1,7
Administrazioaren kontsumoa	3,9	-0,4	0,7	-2,9	-0,4	1,2	2,4
Kapital eraketa gordina	6,0	4,4	4,7	4,8	5,1	2,9	1,6
Barne eskaria	5,4	2,7	3,3	2,5	2,7	2,3	1,8
Esportazioak	12,7	10,4	13,7	13,9	9,4	5,0	6,3
Inportazioak	11,6	7,6	9,4	9,6	7,6	4,0	5,4
Lehen arloa	21,9	0,8	-1,7	-3,4	7,8	0,7	7,4
Industria eta energia	6,1	4,6	6,5	5,9	3,6	2,5	1,1
Eraikuntza	4,5	2,0	1,9	1,3	2,3	2,4	0,9
Zerbitzuak	5,8	4,7	6,2	5,4	4,2	3,3	2,9
Balio erantsi gordina	5,9	4,5	6,0	5,2	4,0	3,0	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,1	2,9	3,9	2,9	2,6	2,1	1,6
Enplegua	5,9	3,1	4,9	3,7	2,0	1,9	1,5

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2023			2023	2024
	II	III	IV		
BPG	1,3	1,6	1,2	1,6	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,1	2,0	1,0	1,5	1,7
Familien kontsumoa	0,0	1,9	1,2	1,2	1,8
Administrazioaren kontsumoa	4,9	2,1	0,6	2,5	1,4
Kapital eraketa gordina	2,3	5,3	2,2	2,8	2,7
Barne eskariaren ekarpena	1,4	2,8	1,3	1,9	2,0
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,2	-1,3	-0,1	-0,3	0,0
Lehen arloa	-6,0	-11,1	4,0	-1,9	0,8
Industria	0,0	2,8	0,6	1,1	1,8
Eraikuntza	1,7	0,8	0,3	0,9	1,6
Zerbitzuak	2,1	1,6	1,6	2,0	2,5
Balio erantsi gordina	1,5	1,7	1,3	1,7	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-0,6	0,4	0,4	0,4	0,3
Lanaldi osoko lanpostuak	1,0	0,8	1,0	1,1	1,6
Landunak (BJA)	0,5	0,5	0,4	0,5	0,9

EAĒKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
BBVA	2,0	2,6	Funcas	1,4	—
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,7	2,5	Laboral kutxa	1,3	—
Confebask	1,5	—	Ceprede	1,2	2,2

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	
BPG	5,5	5,5	6,3	7,7	4,9	3,1	4,2
Kontsumo pribatua	6,0	4,5	4,7	5,2	5,0	3,0	1,6
Kontsumo publikoa	2,9	-0,7	-1,2	-2,6	-1,3	2,5	1,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	0,9	4,6	3,8	6,0	6,3	2,5	0,7
- Aktibo finko materialak	0,1	4,4	3,1	5,8	6,2	2,7	0,8
- Eraikuntzan	-3,7	4,7	0,6	6,5	6,9	4,7	4,9
- Ekipamendu ondasunetan	6,3	4,0	6,9	4,6	5,1	-0,7	-5,7
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,7	5,5	7,1	6,8	6,7	1,5	0,1
Nazio eskaria (ekarpena)	5,2	3,1	4,6	3,7	2,9	1,1	1,4
Esportazioak	14,4	14,4	17,1	20,1	14,2	7,2	10,2
Inportazioak	13,9	7,9	12,6	8,6	8,8	2,1	3,3

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
BBVA	2,4	2,1	Econ Intelligence Unit	1,8	1,4
Oxford Economics	2,3	1,3	Inst. Estud. Económicos	1,8	1,3
Repsol	2,2	1,9	CEPREDE	1,7	2,5
Citigroup	2,2	0,9	UBS	1,7	2,1
Moody's Analytics	2,1	1,4	HSBC	1,6	1,1
S&P Global Market Intel	2,1	1,4	Barclays	1,5	0,9
La Caixa	2,0	1,8	FUNCAS	1,5	1,4
Goldman Sachs	2,0	1,6	Batez bestekoa	1,8	1,5
Fitch Ratings	1,9	1,6	Gobernua (2023-04)	2,1	2,4
CEOE	1,9	1,4	Espainiako Bankua (2023-03)	1,6	2,3
Rabobank	1,9	1,9	Europar Batzordea (2023-05)	1,9	2,0
Grupo Santander	1,8	1,2	NDF (2023-04)	1,5	2,0
AFI	1,8	1,5	ELGA (2023-06)	2,1	1,9

Iturria: Consensus Forecast.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
AEB	5,9	2,1	3,7	1,8	1,9	0,9	1,8
Txina	8,1	3,0	4,8	0,4	3,9	2,9	4,5
Japonia	2,1	1,0	0,6	1,5	1,6	0,4	1,8
Kanada	5,0	3,4	3,2	4,7	3,8	2,1	2,2
Europar Batasuna	5,4	3,5	5,7	4,4	2,6	1,7	1,0
Eurogunea	5,3	3,4	5,5	4,4	2,5	1,8	1,0
Alemania	2,6	1,8	3,8	1,7	1,4	0,8	-0,5
Frantzia	6,8	2,6	4,5	4,0	1,1	0,6	0,9
Erresuma Batua	7,6	4,1	10,6	3,8	2,0	0,6	0,2
Italia	7,0	3,7	6,5	5,0	2,5	1,5	1,9
Herbehereak	4,9	4,5	6,5	5,1	3,0	3,1	2,2

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2023KO EKAINA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
AEB	1,3	0,5	4,1	2,6	3,8	4,6
Japonia	1,1	1,0	2,8	1,5	2,6	2,4
Kanada	1,2	1,0	3,7	2,3	5,4	6,0
Europar Batasuna	0,7	1,4	6,2	2,9	—	—
Eurogunea	0,6	0,9	5,4	2,4	6,7	6,8
Alemania	-0,2	1,1	6,0	2,5	5,6	5,5
Frantzia	0,6	0,9	5,3	2,7	7,2	7,4
Erresuma Batua	0,1	0,8	7,3	3,2	4,1	4,5
Italia	1,0	0,8	6,1	2,5	8,0	8,0
Espainia	1,8	1,5	3,7	2,9	—	—
Herbehereak	0,8	1,1	4,2	2,8	—	—

Iturria: Consensus Forecast.